

# A·22 Diseinu industrialaren gakoak automobilgintzan

01

## Kurtsoa/Maila

1. Batxilergoa

## Datak

2027 Martxo

## Ikaskuntza-arloak

Digitalizazioa  
Lanbide-orientazioa  
Teknologia

## Jarduera formatua

Aditua ikasgelan

## Hizkuntza

Euskara

## Irismen geografikoa

Bizkaia

## Jarduera ematen duen erakundea

Maier S.Coop.

Ikasleek Maier S.Coop enpresa kooperatiboko aditu baten hitzaldiaren bidez, automobilgintzako hainbat pieza eta osagaitarako diseinu industrialak nola egiten den ezagutzeko aukera izango dute.

## STEM Deskribatzaileak

STEM 1

STEM 2

STEM 3

STEM 6

## Baliabideak

### Baliabide materialak

Jardueraren ezaugarrien arabera zehaztuko da.

### Informazio gehiago

maier.es

# A·22 Diseinu industrialaren gakoak automobilgintzan

02

## GARAPENA

### Prestaketa fasea

**Irakasle-Profesionala:** aditua irakasleekin bilduko da, edukia ikasleen alde aurreko ezagutzara egokitzeko. Hotzaldia proiektu/erronka baten garapenean jarriko da.

**Aldez aurreko lana ikasgelan:** ikasleek galderak, zalantzak eta prototipo posibleak prestatuko dizkiote adituari, aldez aurretik lortutako ezagutzetan oinarrituta.

### Garatze fasea

- Adituak produktuaren diseinu-prozesua azalduko die ikasleei marrazkiaren bidez, produktua garatzeko prozesua ezagutu dezaten.
- Halaber, adituak sormenaren, talde-lanaren eta arazoak konpontzeko interesaren garrantzia azpimarratuko du.
- Adibide errealen bidez, agerian utziko du ikasgelan aurrez landutakoaren industria-aplikazio erreala.

- Horretarako, produktu fisikoak eta bideoak erabiliko dira.
- Gainera, bere ibilbide profesionala, bizipenak, enpresan egiten duen lana eta lana egiteko behar den ezagutza azalduko die.

### Ikasgelan integrazio fasea

Ikasleek problema edo proiektu egoeran ikasitakoa aplikatuko dute eta jarduera baloratuko dute.

## CURRICULUMAREKIN LOTURA

Jardueran lantzen diren curriculum-ikaskuntzak:



### Teknologia

- Materialak eta fabrikazioa: sailkapena eta prototipatzea. Fabrikazio digitaleko teknikak, proiektuei aplikatuak. Benetako enpresa bateko prozesu industrialak ezagutzea.
- Automobilgintzaren eta osagaien fabrikazioaren sektorearen testuinguruan kokatutako fabrikazio-prozesuak.
- Sistema mekanikoak, elektrikoak eta elektronikoak: diseinua, kalkulua, muntaketa eta esperimendazio fisikoa edo simulatua. Aplikazio praktikoa proiektuetan.
- Dokumentazio teknikoa zabaldu eta jakinaraztea. Adierazpen, elaborazio, erreferentzia eta komunikazio grafikoa (diseinua).